

**Covid-19ari eusteko neurri gisa beren jardueran hartutako neurri murriztaileak direla-eta, Eskoriatzako ostalaritza bultzatzeko ezohiko laguntzak arautzen eta deitzen dituzten oinarriak.**

### **1. Artikulua. Xedea.**

Laguntza hauen helburua da Eskoriatzako ostalaritza-sektoreak izandako galera ekonomikoak arintzea eta beraien jarduera murriztu behar izan duten establezimenduek jarduera hori berriz hasi edota mantendu ahal izatea osasun krisiarengatik hartutako neurriak amaitu ondoren, horrela, beren jardueran aldiro izaten dituzten hainbat kostu finko arinduz.

Beraz, ostalaritzari-sektoreari jarduera ekonomikoari, enpleguari eta lehiakortasunari eusten laguntzea nahi da Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioei aurre egin diezaieten.

### **2. artikulua. Erregimen juridikoa.**

Deialdi hau ondorengo arauak arautzen dute:

- Oinarri hauek.
- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra.
- 30/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (Estatuko Boletín Oficiala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretuz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorrak.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, eta, zehazki, 17.1.25. artikulua, honako hau jasotzen duena udallerrien eskumen propiotzat: "Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-politikak edo -planak".

Araudi honetan jaso ez diren alderdi guztietan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako legeak aplikatuko dira.

### **3. artikulua. Aurrekontu kreditua.**

Aurrekontu-esleipena hogeita hamabi mila eurokoa (32.000,00 euro) izango da, eta 2021eko honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0500.471.439.00.01 Tokiko jarduera ekonomikoa suspertzeko.

Eman beharreko laguntzen zenbateko osoa ez da adierazitako kontsignazioa baino handiagoa izango.

### **4. artikulua. Erakunde onuradunak.**

Onuradun izan daitezke jarduera ekonomiko baten titular diren pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak; betiere, jarduera horren lantokia Eskoriatzan baldin badago, bere jarduera nagusia Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 67. eta 68. taldeetako edozein epigrafetan alta emanda badago eta COVID-19ak sortutako osasun-krisi egoeraren aurrean beren jarduerarako EAEko agintariek hartutako neurri murriztaileen eraginpean badaude.

67. puntuan adierazitako Eskoriatzako enpresak ostalaritza-establezimenduak izango dira: jatetxeak, tabernak, kafetegiak eta antzeko establezimenduak, beren jarduera establezimendu finkoetan gauzatzen dutenak, publiko orokorrari irekita daudenak, lokal berean kontsumitzeko janariak eta edariak eskaintzeko ohitura dutenak eta itxi aurreko jarduera nagusia janariak eta edariak etxetik etxe banatzea edo horiek establezimenduan jasotzeko prestatzea ez zutenak.

68. puntuan adierazitako Eskoriatzako enpresak ostalua ematen duten establezimenduak izango dira.

### **5. artikulua. Onuradunek bete beharreko baldintzak.**

Onuradunek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) COVID-19ak eragindako osasun krisi egoeraren ondorioz jarduera itxi behar izateagatik edo jarduera murriztera edo mugatzera behartu duen beste neurri murriztaileren baten eraginpean egotea.

- b) Jarduera ekonomikoa negozio-lokal batean garatzea eta lokal hori partikularrei edo kontsumitzaileei zuzendutako produktuak eta zerbitzuak saltzeko erabiltzea.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan Eskoriatzan alta emanda egotea 2020ko abenduaren 10ean, ekonomia-jardueren gaineko zergaren lehen sekzioko 67. taldeko ostalaritza-jardueren eta 68. taldeko ostaluen epigraferen batean, eta zerga ordaintzetik salbuetsita egotea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bategina onartzen duen 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.b) eta c) artikuluetan xedatutakoaren arabera. Eskoriatzako Udalak ofizios egiaztatuko du establezimenduaren egoera Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.
- d) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, alta emanda egotea 2020ko abenduaren 10ean.
- e) Pertsona juridikoen kasuan, legeztatuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egotea, eta 2020ko abenduaren 10ean Gizarte Segurantzako eta mutualitateetako erregimenetan alta emanda egotea.
- f) Eskoriatzako Udalarekin, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga betebeharrak egunean izatea.
- g) Lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapen guztiak betetzea establezimenduan lan egiten duten langile guztiei dagokienez.
- h) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren desgaikuntza-egoeretako batean ere ez egotea.
- i) Covid-19aren aurkako araudia ez betetzeagatik agintaritza eskudunak hasitako zehapen-espeditente baten parte ez izatea.
- j) Terrazako ekipamendurako laguntza eskatuz gero, terraza jartzeko berariazko udal-baimena izatea.

## **6. artikulua. Dirulaguntzak jaso ditzaketen gastuak, dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.**

### **6.1 Deialdi honen ondorioetarako honako hauek jotzen dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:**

- Negozio-lokalen alokairu gastuak.
- Jarduerarekin lotutako ondasunen erosketa finantzatzeko maileguen amortizazio eta interes gastuak.
- Aholkularitza gastuak.
- Kontsumo gastuak (argindarra, gasa, telefonoa, erregaiak...).
- Produktu galkorrak eta jarduerarekin zuzenean lotutako beste batzuk erostearen gastuak.
- Terrazako ekipamenduari buruzko gastuak.

Terrazako ekipamenduei dagokienez, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra arte sortutako gastuei dagozkienak, betiere, beste udal-programaren baten bidez diruz lagundu ez badira.

Gainerako gastuetarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2021eko otsailaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra arte sortutako gastuei dagozkienak, betiere, beste udal-programaren baten bidez diruz lagundu ez badira.

### **6.2 Dirulaguntzen zenbatekoa.**

- Terrazako ekipamenduetarako gastuak: 600 eurora arte establezimendu bakoitzeko.
- Gainerako gastuentzat: 1.200 eurora arte establezimendu bakoitzeko.

Kasu bietan, justifikatutako gastua aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa baldin bada, justifikatutako gastura egokituko da dirulaguntza.

6.3. Dirulaguntzara bideratutako kreditua ez bada nahikoa eskabide guztiei erantzuteko, dirulaguntzeara bideratutako gehieneko zenbateko osoa erakunde onuradunen artean hainbanatuko du organo eskudunak (38/2003 Legearen 22. artikulua) laguntza hauetarako aurreikusitako zuzkidura agortu arte.

#### **7. artikulua. Eskaerak eta dokumentazioa aurkeztea.**

1. Eskaerak aurkezteko epea hogei egun baliodunekoa izango da, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.
2. Dirulaguntzearako eskabidea Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztu behar da, [www.eskoriatza.eus](http://www.eskoriatza.eus) helbidean, hurrengo puntuan eskatzen den dokumentazioarekin batera. Pertsona fisikoek Udal Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dute, jendearentzako ordutegian.
3. Eskaera Udalak egindako eskaera ofizialaren erudian egin beharko da.
4. Eskabidearekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:
  - a) Dirulaguntzaren helburu den norberaren konturako langilearen edo autonomoaren izen-abizenak eta NANA. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala eta IFK, eta hala badagokio, ahalordedunaren NANA.
  - b) Dirulaguntzarako eskaera aurkezteko unean Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
  - c) Dirulaguntzarako eskaera aurkezteko unean Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea egiaztatzeko ziurtagiriak.
  - d) Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzeko erantzukizunpeko adierazpena. Udalak egindako adierazpen ofizialaren ereduaren bidez egin beharko da (1. eranskina).
  - e) Dirulaguntza sartu beharko litzatekeen kontu korrontearen titulartasunaren egiaztatzea.
  - f) Gastuak justifikatzeko dokumentuak: gastu horiek justifikatzeko fakturak eta ordaindu izanaren justifikanteak. Establezimenduaren alokairu kontratua. Terrazako ekipamendurako laguntza eskatzen bada eta oraindik gasturik egin ez bada, jarri nahi den ekipamenduaren aurrekontua aurkeztu ahal izango da, baina jarduketa 2021eko irailaren 1a baino lehen egin beharko da.
  - g) Eskoriatzako Udalak kasu bakoitzean eska dezakeen beste edozein agiri.

Ostalaritza establezimendu bakoitzeko eskaera bakarria aurkeztu beharko da.

4. Eskatutako dokumenturen bat dagoeneko Eskoriatzako Udalaren organoren batek bere esku edukiko balu, dirulaguntzaren eskatzaileak 39/2015 Legearen 53.1.d, 28.2 eta 28.3 artikuluetan ezarritakoari heldu ahal izango dio. Horretarako, eskatzaileak adierazi egin beharko du noiz eta zein sailetan aurkeztu edo emanda dituen dokumentuok, eta horiek kontuan hartu ahal izateko ezingo dira bost urte baino gehiago igaro zegokien prozedura amaitu zenetik. Eskabideak edo horrekin aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsik izanez gero, edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko (39/2015 Legearen 68.1 artikulua). Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere, 39/2015 Legeak 93. eta 94. artikuluetan aurreikusitako moduan erabakia eman ondoren.

#### **8. artikulua. Espedientearen instrukzioa.**

Dirulaguntza hauen instruktorea Ekonomia Garapen arloko teknikaria izango da.

#### **9. artikulua. Erabakia eta jakinarazpena.**

Eskabideak Alkate erabaki bidez erabakiko dira, eta erabakia gehienez ere 3 (HIRU) hilabeteko epean jakinaraziko da eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita. Erabakirik ez bada ematen, eskaera ezetsizat joko da. Banaka jakinaraztea alde batera utzi gabe, onuradunen zerrenda Udalaren webgunean argitaratuta egingo da jakinarazpena.

#### **10. artikulua. Entitate onuradunen betebeharrak.**

Dirulaguntza emanez gero, oinarri espezifikoetan jasotako ez gain, erakunde onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Helburua betetzea, proiektua betetzea, ekintza egitea edo dirulaguntza emateko zio den jokabideari eustea.
- b) Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.

- c) Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta horretarako eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, diru-funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- e) Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko, Foru Ogasunarekiko eta EAeko Administrazioarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.
- f) Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- g) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea

**11. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna eta finantzaketa-mugak.**

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bera duten edota kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten erakunde publiko edo pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada; gainfinantzaketarik balego, programa honen bidez eman beharreko dirulaguntza murriztu egingo da gainditutako zenbatekoan.

**12. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko modua eta epea.**

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaie onuradunei, dirulaguntza emateko erabakiaren ondoren eta bertan ezarritako epean.

Laguntza terrazako ekipamendurako bada, eta eskabidea aurkezteko unean aurrekontua baino ez badago, diruz lagundutako jarduerari buruzko faktura aurkeztu ondoren egingo da ordainketa. Jarduketak 2021eko irailaren 1a baino lehenagokoa izan beharko du, eta justifikazio-faktura eta ordainagiria 2021eko irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

**13. artikulua.- Oinarriak interpretatzea.**

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoak erabakiko ditu, Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzorde informatzaileak txostena egin ondoren, hala badagokio.